


BERTSOLARIAK

BERTSOLARI TXAPELKETA

(1965-1-1)



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-917

9569

BERTSOLARI-TXAPELKETA

(1965 - 1 - 1)

AUSPOA LIBURUTEGIA

43

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**
Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 240 pezeta Atzerrian: 325 pezeta
Ongilleak: 400 " Ale bakarra: 30 "

BERTSOLARIAK

BERTSOLARI - TXAPELKETA

(1965 - 1 - 1)

AUSPOA LIBURUTEGIA
1964

Núm. Registro 767/65
Dep. Legal S. S. 102/65



“UZTAPIDE”

ITZAURREA

Liburu au, Donostia-n, Urteberri-egunez eta Anoeta pilota-jokuan, Euskalerriko Bertsolari-Txapelketa Nagusian kantatu ziran bertsoekin osatuta dago.

Bertsoak magnetofon-aritik paperera aldatu dira, itzik batere aldatu gabe noski.

Bañan Donostia-koa “nagusia” bazan, bere mendeko txapelketarik ere izan bearke zuan. Bai ala izan ere. Euskal probintzi guzietan —Bidasoaz beste aldekoetan izan ezik— beste txapelketa asko egin izan ziran aurretik.

Donosti-koa zer izan zan —bertan lau mila entzule eta radiotik zenbat Jaungoikoak jakin— ikusi zuanak bakarrik daki. Aspaldi ontan euskerak ezagutu duan egunik aundiena. Bañan beste txapelketa oiek gabe, Donostia-koa etzan erdira ere iritxiko.

Ta orain esker gaiztoa agertuko luke, oien aitamenak egingo ez balitu. Ez du beste itzaurrerik bear. Ona, beraz, emen txapel-

keta bakoitzeko tokia ta eguna, eta agertutako bertsolarien izenak:

NAPARROAN

Berute-n, 1964-ngo Maiatzaren 3-an:

Andres Narbarte "Xalto", Goizuetakoa, txapeldun.

Anjel Aldaz, Yaben-goa.

Martin Oreja, Errazkin-goa.

Felix Mariezkurrena, Goizueta-koa.

Jose Maria Mutuberria, Elzaburu-koa.

Migel Rekalde, Arruiz-koa.

Moises Jaso, Gainza-koa.

Manuel Huizi, Arano-koa. (1)

Lesaka-n, 1964-ngo Garragarrillaren 14-an:

Migel Arozamena, Lesaka-koa, txapeldun,

Manuel Arozamena, Lesaka-koa, bigarren.

Roman Mihura, Lekaroz-koa.

Bautista Madariaga, Arantza-koa.

Frantzisko Latasa, Mugaire-koa.

Felix Iriarte, Arizkun-goa.

Klemente Ezkurdia, Elizondo-koa.

Inazio Rekondo, Mugaire-koa.

(1) Txapelketa bakoitzeko txapelduna ta bigarrena nor izan ziran, izenaren ondoan esaten degu. Baina gañerako bertsolarien izenak nolana jarriak dira. Dauden tokiak ez du, beraz, zenbatgarren gelditu ziran adierazten.

*Iruña-n, 1964-ngo Agorraren 27-an, Napa-
rroa-ko txapelketa nagusia:*

Andres Narbarte, "Xalto", txapeldun.

Migel Arozamena, bigarren.

Bautista Madariaga.

Anjel Aldaz.

Manuel Arozamena.

Roman Mihura.

Jose Maria Mutuberria.

Moises Jaso.

BIZKAIAN

Urkiola-n, 1964 Garagarrillaren 13-an:

Julian Martitegi, Mañarikoa, txapeldun.

Jerman Uriguen, Ermua-koa.

Frantzisko Mandiola, Mallabi-koa.

Jose Alberdi, Mañari-koa.

Manuel Sarrionandia, Iyurreta-koa.

Inazio Urkidi, Iyurretakoa.

Mungia-n, 1964-ngo Uztailaren 19-an:

Felix Ortuzar, Muxika-koa, txapeldun.

Jon Enbeita, Muxika-koa.

Manuel Basabe, Lumo-koa.

Pedro Ortuzar, Muxika-koa.

Juan Olarra, Errigoiti-koa.

Juan Jose Aguirre, Gernika-koa.

Pedro Kastrejana, Loiu-koa.

Juan Ormaetxe, Mungi-koa.

Markiña-n, Larruskain-en, 1964-ngo Uztailaren 31-an:

Abel Muniategi, Ereño-koa, txapeldun.

Domingo Iriondo, Larruskain-koa.

Justo Longarte, Murelaga-koa.

Gregorio Larrañaga, Larruskain-koa.

Igorre-n, 1964-ngo Abuztuaren 16-an:

Basilio Pujana, Zeanuri-koa, txapeldun.

Jose Maria Gurtubay, Lemona-koa, bigarren.

Gernika-n, 1964-ngo Abuztuaren 17-an, goizean, Bizkaiko txapelketa nagusiaren aurrekoa:

Juan Mugartegi, Berriatua-koa, txapeldun
Jose Maria Arregi, Berriatua-koa, txapelketa nagusirako aukeratua.

Ireneo Ajuria, Muxika-koa, berdin.

Deunoro Sarduy, Muxika-koa, berdin.

Basilio Pujana, berdin.

Abel Muniategi, berdin.

Felix Ortuzar.

Julian Martitegi.

Ondarroa-n, 1964-ngo Abuztuaren 17-an, arratsaldean, Bizkaiko txapelketa nagusia:

Juan Lopategi, Muxika-koa, txapeldun.

Juan Mugartegi, bigarren.

Juan Azpillaga, Berriatua-koa.

Jose Maria Arregi.
Ireneo Ajuria.
Deunoro Sarduy.
Basilio Pujana.
Abel Muniategi.

GIPUZKOAN

Andoain-en, 1964-ngo Garagarrillaren 21-an:

Domingo Garmendia, Berrobi-koa.
Kasiano Iburguren, Anzuola-n jaio ta Lizartza-n bizi dana. (1)
Patrizio Sarasola, Billabona-koa.
Migel Esnaola, Abalzisketa-koa.
Fermin Muñoa, Berrobi-koa.
Bitor Ibarbia, Berrobi-koa.
Ramon Etxeberria, Ernialde-koa.
Antonio Bidaola, Lizartza-koa.
Juan Jose Zubiaurre, Alkiza-koa.
Inazio Odriozola, Alzo-koa.
Lazaro Azurmendi, Berastegi-koa.

Mondragoe-n, 1964-ngo Garagarrillaren 28-an:

Jose Maria Gabilondo, Anzuola-koa, txapeldun.
Jesus Egileor Alberdi, Osintxu-koa, bigarren.

(1) Txapelketa ontan etzan txapeldunik eta bigarrenik izan. Garmendia ta Iburguren gelditu ziran biak berdin beste guzien aurretik.

Bizente Iribekanos, Bergara-koa.
Jose Luis Gorrotxategi, Osintxu-koa.
Bitor Agirre, Brinkola-koa.
Jesus Alberro, Brinkola-koa.
Bitoriano Barrena, Anzuola-koa.
Jose Suinaga, Angiozar-koa.
Iñaki Azarola, Brinkola-koa.
Santiago Iparraguirre, Oiartzun-go semea,
Eskoriaza-n bizi dana.
Martin Egileor Alberdi, Osintxu-koa.
Gregorio Etxeberria, Mondragoe-koa.

Errenteria-n, 1964-ngo Uztailaren 23-an:

Frantzisko Etxeberria, Orioko semea, La-
sarte-n bizi dana, txapeldun.
Kosme Lizaso, Oiartzun-go, bigarren.
Santiago Zabala, Lezo-koa.
Pedro Iturain, Oiartzun-go.
Pablo Zubiarrain, Ernani-koa.
Agustin Unsain, Herrera-koa.
Jose Usabiaga, Errenteri-koa.
Inazio Alkain, Urnieta-koa.
Antonio Lizaso, Errenteri-koa.

Azkoiti-n, 1964-ngo Abuztuaren 9-an:

Manuel Olaizola, Arrua-koa, Uztapideren
illoba, txapeldun.
Pedro Aizpurua, "Lilibe", Zestua-koa, bi-
garren.
Rafael Zubizarreta, Azkoiti-koa.

Inazio Lizarralde, Azkoiti-koa.
Roberto Arregi, Azkoiti-koa.
Antonio Aranbarri, Azkoiti-koa.
Nikolas Zendoia, Azpeiti-koa.
Jesus Etxabe, Azpeiti-koa.
Jose Antonio Salegi, Azpeiti-koa.
Jose Aranbarri, Azkoiti-koa.
Jesus Azkune, Azpeiti-koa.

Beasain-en, 1964-ngo Agorraren 20-an:

Jose Intxausti, Segura-koa, txapeldun.
Jose Antonio Aranzadi, Ezkio-koa, bigarren.
Jesus Maria Imaz, Segura-koa.
Zeferino Agirre, Segura-koa.
Jesus Eskisabel, Legorreta-koa.
Jose Maria Aranburu, Zaldibi-koa.
Eusebio Ibarzabal, Gabiri-koa.
Inazio Intxausti, Segura-koa.
Antonio Barandiaran, Olaberri-koa.
Felipe Barandiaran, Lazkao-koa.
Jose Antonio Luluaga, Legorreta-koa.

Zarautz-en, 1964-ngo Azaroaren 15-an:

Jose Maria Lertxundi, Aya-koa, txapeldun.
Jose Maria Roteta, Aya-koa, bigarren.
Markos Manterola, Aya-koa.
Tiburzio Zubizarreta, Elgoibar-koa.
Santiago Olasagasti, Usurbil-koa.

Migel Esnaola, Zarautz-koa.
Antonio Larra, Endoya-koa.
Jose Antonio Astigarraga, Endoya-koa.
Jose Makazaga, Endoya-koa.
Inazio Jauregi, Zumaya-koa.
Segundo Etxeberria, Errezil-ko semea, Zarautz-en bizi dana.
Joseba Ostolaza, Zarautz-koa.
Jaime Manterola, Aya-koa.
Jose Antonio Zulaika, Zarautz-koa.

Eibarren, 1964-ngo Abenduaren 6-an, Gipuzkoa-ko txapelketa nagusiaren aurrekoa:

Jose Migel Iztueta, "Lazkao-txiki", Lazkao-koa.
Jose Joakin Mitxelena, Oiartzun-goia. (1)
Domingo Garmendia.
Kasiano Iburguren.
Frantzisko Etxeberria.
Kosme Lizaso.
Manuel Olaizola.
Pedro Aizpurua, "Lilibé".
Jose Intxausti.

(1) Txapelketa ontan etzan txapelduna ta bigarrena izendatu. Gipuzkoako txapelketa nagusian kantatu bear zutenak aukeratzeko egin zan saioa. Mitxelena ta Lazkao-txiki, azkeneko txapelketan txapeldun ta bigarren atera baitziran, besterik gabe aukeratuak zeuden. Bañan Eibar-ko Erriko Etxeak kopa bat emana zuan, eta ura nork irabaziko ote zuan kantatu zuten, Garmendia ta Lertxundi-rekin batera. Lazkao-txikik irabazi zuan.

Jose Antonio Aranzadi.
Jose Maria Lertxundi.
Markos Manterola. (2)

Tolosa-n, 1964-ngo Abenduaren 13-an, Gipuzkoa-ko Txapelketa Nagusia:

Jose Migel Iztueta, "Lazkao-txiki", txapel-
peldun.
Domingo Garmendia, bigarren.
Jose Joakin Mitxelena, irugarren.
Jose Intxausti.
Frantzisko Etxeberria.
Kasiano Ibarguren.
Kosme Lizaso.
Jose Maria Lertxundi.

*Bilbo-n, 1964-ngo Abenduaren 20-an, Euskal-
kalerri guziko txapelketa nagusiaren aurre-
koa:*

Jose Migel Iztueta, "Lazkao-txiki".
Jose Joakin Mitxelena.
Domingo Garmendia.
Fernando Aire, "Xalbador".
Mattin Trecou.
Andres Narbarte, "Xalto".
Migel Arozamena.

(2) Roteta-k kantatu bear zuan, bañan motoare-
kin iztarra autsi zuan, ta onen ordez Markos Man-
terola, Zarautz-en irugarren gelditutakoa, etorri zan.

Juan Lopategi.
Juan Mugartegi. (1)

Donostia-n, 1965-ngo Urteberri-egunean, Euskal-erri guziko Txapelketa nagusia:

Manuel Olaizola, "Uztapide", txapeldun.
Jose Migel Iztueta, "Lazkao-txiki", bigarren.
Fernando Aire, "Xalbador", Aldude-koa, irugarren.
Jose Joakin Mitxelena, laugarren.
Mattin Trecoü, Ahetze-koa, bostgarren.
Juan Lopategi, seigarren.
Juan Mugartegi.
Migel Arozamena.
Andres Narbarte, "Xalto".
Domingo Garmendia.

Agertu diran bertsolariak:

Lapurditik:	1
Baxenabarratik:	1
Naparroatik:	16
Bizkaiatik:	26
Gipuzkoatik:	71
Guzira	115 bertsolari

(1) Guziak aukeratu ziran Donosti-rako, eta bertako kopa Lazkao-txikik irabazi zuan.

GOIZEKO SAIOA

Mugarategi

Arozamena

Garmendia

Narbarte

Lazkao-txiki

Xalbador

Mattin

Mitxelena

Lopategi

ASIERA

Irigoyen: Agur, jaunak, agur, andreak, agur Euskalerriko entzule biotzeko guztiai, bai emen Anoetako frontoi ontan zaudetenoi, eta bai radiotik entzuten dezutenoi. Urte berri on guztioi.

Badira urte batzuek txapelketa aukeratzeko eratzeko asi ginala, eta aurrean ere erririk erri ibilli gera Bizkai-Gipuzkoa-Naparroetan, naituzten bertsolari guztiai bidea ematen, gora-goko mallako txapelketetara igo zitezten, eta Euskalerra osoko txapelketa nagusi au orre-xen frutua baizik ez da.

Emendik eskerrak eman bear dizkiegu urtearen buruan laguntasuna eman diguten persona ta elkartade guztiai. Nola asko ta asko diran, ezin genitzake izenak aipatu, bestela luzatu egingo ginalake.

Asi baño len, oar batzuk egingo ditugu. Lenengo esango degu Juradua nola dagoen osatua:

Mugaz gorakoak dira Emile Larre Hazpandarra, eta Mixel Itzaina, Aldudarra. Emengoak, Pedro Díez de Ulzurrun, apai-

za, Euskaltzaindiko urgazlea; Jose Maria Satrustegi, euskaltzaiña; Aita Martzel Andrinua, Euskaltzaindiko urgazlea; Gabriel Aresti, Euskaltzaindiko urgazlea; Aita Antonio Zavala, euskaltzaiña; Juan Maria Lekuona, apaiza, Euskaltzaindiko urgazlea; Antonio Arrue, euskaltzaiña; Juan San Martin, euskaltzaiña; Fernando Artola, "Bordari", Euskaltzaindiko urgazlea; Eusebio Eizmendi, "Txapel", bertsolari zarra, gaur egunean plazetan kantatzen ez duena; eta azkenez, dakizuten bezela, ni, Alfonso Irigoyen, euskaltzaiña ni ere.

Parte artzen duten bertsolariak, aurrean dituzutenak dira. Asi baño len zotz egin degu beren artean eta ordena ontan kantatu bearko dute:

Juan Mugartegi, Berriatua-koa, aurtengo txapelketan Bizkaian bigarren gelditu dana.

Bigarren, Migel Arozamena, Lesaka-koa, Naparroa-ko txapelketan aurren bigarren gelditu dana.

Irugarren, Domingo Garmendia, Berrobi-koa, Gipuzkoako bigarren gelditutakoa aurren.

Laugarren, Andres Narbarte, Goizueta-koa, Naparroako txapelduna.

Bostgarren, Joxe Migel Iztueta, "Lazkao-

-txiki", Lazkao-koa, Gipuzkoako txapelduna.

Seigarren, Fernando Aire, "Xalbador", Urepel-koa.

Zazpigarren, Mattin Trecou, "Mattin", Ahetze-koa.

Zortzigarren, Joxe Joakin Mitxelena, Oiarzun-goia, Gipuzkoako irugarrena.

Bederatzigarren, Juan Lopategi, Bizkaiko txapelduna.

Oiek dira parte artuko duten bertsolariak.

Txapelketa onela egingo da: Uztapidek eztu parte artuko goizeko saioan, eta goizeko saio ontan lau bertsolari aukeratu bear dira arratsalderako.

Arratsaldean laurak beren artean arituko dira, eta gallen geratzen danak Uztapidekin jokatuko du Euskalerra osoko txapel nagusia.

Lauretan asiko da arratsaldeko saioa, eta asieran partituko ditugu igazko sariketan aurrena gelditu ziran bertso-paperen sariak. Badakizute, sariketa au urtero egiten dala, urtearen azkenera arte zegoan epea luzatu egin da Maiatzaren asiera arte; norbaitek bialdu nai baditu argitaratzen dituen bertso-paperak, eskubidea du. Arratsaldean asieran partituko ditugu lengo sariak.

Eta, geiago gabe, txapelketa astera dijoa. Bana-banaka agurra botako dute, bakoitzak bertso bana. Dakizuten bezela, agurra Jura-duak eztu kontuan artzen puntuaziorako.

Mesedez, etorri, Juan Mugartegi, agurra botatzera. Bertsolari guztiak botako dute agur bana radioaren bidez entzuten dauden beren erritarrai.

AGURRA

Mugartegi:

Agurtutzeko lelengo aldiz
gu emen gaude jarriyak,
beste lan gabe bertsotarako
nola geran etorriyak,
aseko al deguz, anai-arrebak,
dituzuen egarriyak,
badakizute zorion bana
daukala urte berriyak,
nere bertsua entzun dezala
Berriatuko erriyak.

Arozamena:

Lenago ere gure Donostik
bazitun olako egunak,
Euskalerriya goratziarren
pasa izan ditugunak,
gure erriyan radiotikan
len e baituzte entzunak,
gaur ere entzuten egongo dira
Lesakar on da txukunak,
urte berri on opa dizutet,
biotzeko euskaldunak.

Garmendia:

Gu bederatzi bertsolari emen
zaletasunez beteak,
guk lenago're amaika saio
ola ditugu boteak,
autsi ditzagun bildurrak eta
kezkak dituzten kateak,
asierako urte berri on,
Berrobitar maiteak.

Narbarte:

Goizuta txikiya da erriya bañan
beti aundiyan neurrian,
erritxo orren izentxo ori
zuek dakizte aspaldian,
berarentzako maitetasuna
beti daukat memorian,
kontentu daude Narbarte xarra
onuntz etorri danian,
nik orkotarrak jarko nituzke
goiko izarren erdian.

Lazkao-txiki:

Lendabiziko agurtzen ditut
Lazkao-ko sukaldeak,
eta urrena berexi-eta
datozten bertso-zaleak,

guk nai bezela erantzun du gaur
baserriak ta kaleak,
egun on eta urte berri on,
biotzeko entzuleak.

Xalbador:

Argia hasi baino lehen ni
etxetikan niz joana,
urte berria hastera zoan,
herri guzia etzana,
zuen aurrean kausitzen bainaiz,
herritarrak, zer zoriona!
hemendik desiratzen daitzuet
deneri urte on bana.

Mattin:

Urte xaharra finitu da ta
gau huntan hasi bestia,
ta egun huntan bear izan dut
bisitatu Donostia,
nere herritik joan naiz bainan
eztut gero ahantzia,
hau da zeruko Aita onari
eskatzen dudan guzia,
herritarreri eman dezala
osasuna ta grazia.

kausitzen = arkitzen.
ahantzia = aztua.

Mitxelena:

Nere erritar Oiartzuarrok
jatorrak eta zintzuak,
urte zar ori ondo amaitu
pozez gaude geientsuak,
gaur emendikan eskeintze'izutet
Mitxelenaren bertsuak,
aiton-amon da zenbat sasoiko,
gañontzeko umetxuak,
urte berriyak izan gaitzala
guztiok zoriontsuak.

Lopategi:

Ona azkenez zelan ein naizen
neure berbiaren jabe,
eta Muxikak entzula batzuk
baditu dudarik gabe,
naiz-ta izan ez orrek merezi
bezin sendo eta trebe,
maite dot neure Ariyatza ta
Astelarra ta Eleizalde,
gaurko zantzuak eskindurikan
Muxika osuaren alde.

LAU PUNTUAK EMAN-DA

Irigoyen: Bederatzi bertsolariak bota dute agurra radiotik entzuten ari diran erritarrai, eta orain binaka agertu bear dute. Emendik aurrerako bertsoak Juraduak gogoan artuko ditu. Lenbizi bakoitzari lau puntu eman da bertso bana osatu bear dute.

Lenbizi, Mugartegi: laratza, ardatza, garratza, eta baratza. Berriz diot: laratza, ardatza, garratza, eta baratza. Zortziko txikian osatu bear dezu bertsoa:

Mugartegi:

Gure sukalde-barruan
badago laratza,
zintzilizka edukitzen
duena aldatza,
esnea egosita
minduaz garratza,
fruta naiko artzeko
badaukat baratza

Irigoyen: Bigarren, Migel Arozamena:
nai, bai, zai, gai. Berriz esango det: nai,
bai, zai, gai.

Arozamena:

Goizean etorrita
ementxe nago bai.
zuk jarritzen dirazu
kantatutzeko gai,
etorri geran ezkeru
guk zerbait ere nai,
txapela eman nai badezu
ementxe nago zai.

Irigoyen: Irugarren, Domingo Garmendia:
apaiza, eleiza, kaliza, paliza; berriz esango
det: apaiza, eleiza, kaliza, paliza.

Garmendia:

Gure erriyan e jato-
rra dago apaiza,
egunero goizean goizik
joaten da eleizâ
meza erdian gorâño al-
txatzen du kaliza,
ni gaiztua naiz eta e-
man ziran paliza.

Irigoyen: Laugarren, Andres Narbarte:
eragin, txakolin, berdin, arin. Berriz esan-
go dizut: eragin, txakolin, berdin, arin.

Narbarte:

Goizetik txurrutak ez dit
askorik eragin,
nola eran baituan
baso bat txakolin,
moxkorra ez nagola
entzun dute berdin,
orain norla nabillen
tripatatik arin.

Irigoyen: Bostgarren, Lazkao-txiki: lagu-
na, leguna, lizuna, illuna. Berriz esango di-
zut: laguna, leguna, lizuna, illuna.

Lazkao-txiki:

Enaiz mutil aundiya ta
ezta're lizuna,
txiki xamarra bañan
ez oso illuna,
gixen xamarra eta
gañera leguna,
orain falta zaitana
neguan laguna.

Irigoyen: Seigarren, Xalbador: gorriya, larriya, urriya, berriya. Berriz esango dizut: gorriya, larriya, urriya, berriya.

Xalbador:


Urte zaharra enetzat
izan da urriya,
ez da nik nahi baino
len hasi berriya,
harekin ibili naiz
askotan larriya,
hartan ikusia det
ifernu gorriya.

Irigoyen: Zazpigarren, Mattin: biotza, eriotza, lotsa, poza. Berriz esango dizut: biotza, eriotza, lotsa, poza.

Mattin:

Ez nuke ikusi nahi
oino eriotza,
nere ustian beintzat
sano det biotza,
askari ona ein eta
orai ez naiz lotsa,
ta zuen artian kantatzea
nik badaukat poza.

askari = gosari.



Lazkao-txiki

Uztapide

Arozamena

Mugartegi



Lopategi

Martin

Xalbador

Mitxelena

Garmendia

(Narbarte falta da)

Irigoyen: Zortzigarren, Joxe Joakin Mitxelena: maia, jaia, anaia, alaia. Berriz esango dizut: maia, jaia, anaia, alaia.

Mitxelena:

Urteberri-egunek
ekartzen du jaia,
izaten da zorionez
jarritzeko maia,
da alkaturik bakoitzak
beraren anaia,
danok pasatzen degu
egun bat alaia.

Irigoyen: Eta bederatzigarren, Juan Lopategi: basua, gozua, besua, jasua. Berriz esango dizut: basua, gozua, besua, jasua.

Lopategi:

Biotza ez dadukat
nik oso jasua,
zerbaiten billa dabil
neronen besua,
asko maitatutzen det
ardotxo gozua,
billatzen nabil baña
nun dago basua?

Irigoyen: Bederatziak saio au egin ondoren, binaka agertuko dira orain, len esan degun bezela.

Lenbizi, Juan Mugartegi eta Migel Arozamena. Etorri mesedez.

MUGARTEGI TA AROZAMENA

Irigoyen-ek: Asteko, bakoitzari puntu bina.

Irigoyen:

Gaur degu urtearen
lenengo eguna,

Mugarategi:

gure Jaunak zerutik
eskintzen diguna,
sortzen asi danian
etzegon illuna,
lurrari argi egiteko
au bear deguna.

Irigoyen:

Gizon arroa sarri
ibiltzen da oker,

Arozamena:

bañan eroritzen da
biretikan laster,
ori (i) ikusirikan
eskubi ta ezker,
onak izan gaitezen
gaur da milla bider.

Irigoyen:

Esatera zarra da:
gauz ona iraunkor,

Mugarategi:

guk ere jarraitu bear
geure bidez jator,
Donostia agurtzera
ni biotzez nator,
da entzuleak erantzun
dute gaurkoz gogor.

Irigoyen:

Gure lan bakarra da
euskerari eustea,

Arozamena:

tristia genduke oi
beraño jextea,
oraindikan arkitzen da
gogor da gaztea,
denborakin baleike
goraño irixtea.

* * *

Irigoyen: Ofizioa emango diegu orain, ta alkarrekin teman iruna bertso kantatuko dituzte. Juan Mugarategi izango da pelotaria, eta Arozamena bere alde dirua jokatu ta galdu egin duena.

Mugarategi:

Gaur Donostira etorria naiz
partidu bat jokatzera,
urte berrian zorion bat nik
eraman nai nun etxera,
nunbait etzaigun komeniko ta
erori gera galtzera,
bañan, laguna, nitzaz jokutzen
zu zertan etorri zera?

Arozamena:

Nik e gogua lendik baneukan
onera iritxitzeko,
pelotan zer mouz jokutzen zendun
begiez ikusitzeko,
gezurrikan etzazu esan orain
iñor engañatutzeko,
kanpun zeorrek esan zeniran
zure alde jokatzeko.

Mugarategi:

Pelotariak partidurako
bagendun gogo naikoa,
da lagun bati au esatia
ez degu arritzekoa,
zu izan zera jokolari bat
guztien jokatzekoa,
nere errukiz nik ez det galdu,
kontra neukan Jaungoikoa.

Arozamena:

Nik pentsatzen det lan egiteko
etzendula gogorikan,
ikusit zaitut bi-iru aldiz
gerrik ezin makurturikan,
bote ederra egiten ziyon,
etzun egin nai korrikan,
nere diruak onentzat dira
partidua galdurikan.

Mugartegi:

Lagunen kontra itzegiteko
zu etzaude atsegiña,
siñestu zazu joko-legea
ez dala izaten berdiña,
nik izango det neure erruaz
gaurko ontan utsegiña,
zuk etzenduan ezer galduko
etxian egon baziña.

Arozamena:

Enun pentsatzen ni gaur ununtza
zuregana etortzerik,
eta enitzan etorriko'r'ez
bazendun jarri biderik,
ez det pentsatzen nik zure alde
geio inun jokatzerik,
pelotariyak ez dute ematen
disgusto txarra besterik.

* * *

Irigoyen: Orain Mugartegik iru bertso kantatuko ditu. Gaur gure elizetan lenengo aldiz entzun dira euskeraz ebanjelioa ta epistola. Zure iritzia eman bear dezu iru bertsotan.

Mugartegi:

Nere buruan jarria dago
Jangoikoak dakarrena,
da zorionez bilduak gera
Donostian alkarrena,
eleiz-gizonen laguna naiz ni
da ezta izango txarrena,
euskeraz bertan mintzatutzia
da legerikan zarrena.

Fedeko itzak ondo autortzen
egingo det alegiña,
ebanjelio ta epistola
nola zeuden gaur jarriña,
Jesukristoren legea degu
eginkizunik aundiña,
zerua irabazi nai bada
egin daigun alegiña.

Anai t'arrebak, danok daukagu
guk aita baten odola,
Jesukristoren erentzia da,
ezin ukatu iñola,

Euskalerrriyan ebanjelio
euskeraz da epistola,
aurrera ere segi dezala
jarraitutzen, bai, orrela.

* * *

Irigoyen: Arozamenak, beste iru bertso
gezurrari:

Arozamena:

Gure Alpontxok zer esango zun
entzundakuan banakin,
t'asi nai nuke orain kolpetik
entzuten diran itzakin,
bire okerrak artutzen dira
askotan bai mingañakin,
beste batzuek berriz dezente
bizi dira gezurrakin.

Gu txikitatik olakorikan
iñun ez gendun ikusi,
eta dotriña ikasi gendun
eskolatikan lenbizi,
zuzen-bidetan egon nai bada
disgustorik gabe bizi,
lagun maitiak, gezur esaten
iñori ez erakutsi.

Gure itzak gezurra orrekin
azkeneko kondarretan,
aritzen gera engañatutzen
alperrikako lanetan,
egiy'esanda're bizi gera
mundu onetan zorretan,
beste batzuek berriz kotxian
dabiltzalik gezurretan.

* * *

Irigoyen: Bukatu dute saioa Juan Mugar-
tegik eta Migel Arozamenak. Orain tokatzen
zaie Domingo Garmendia eta Andres Nar-
barteri. Mesedez etorri onera.

GARMENDIA TA NARBARTE

Irigoyen: Len bezela, bakoitzari puntu bina:

Irigoyen:

Zu ibilli al zera
geiegi eranda?

Garmendia:

garbi esplikatutzen
neretzako lan da,
neretzat e erateko
etortzen da txanda,
baño erandakuak dauzkat
neronek emanda.

Irigoyen:

Gustatzen al zaizkizu
zuri piper miñak?

Narbarate:

gizonantzat dira orik
jeneruak fiñak,
jaten egiten ditut
beti alegiñak,
lanak ematen ditu
sofritu-eziñak.

Irigoyen:

Udaberriak dakar
kukuaren otsa,

Garmendia:

orain nun-nai badago
elur eta izotza,
triste-antxean aspaldi
dadukat biotza,
ots ori entzuteko
nik daukaten poza!

Irigoyen:

Nere izateak ez du
zu gabe gauz onik,

Narbarte:

ez badet andrerikan
ni ez naiz gizonik,
egiya esango det
oraingo ontan nik,
ez al da iñortxo emen
gustatutzen danik?

* * *

Irigoyen: Ofizioa emango diegu orain: Domingo Garmendia, zu zera kamion baten jabea, eta Andres Narbarte berdin; kamion baten jabea zu ere. Zeren kamionakin Donostian barrena zoaztela, txoke bat egin dezute, oso gogorra. Ez dezute miñik artu, baña bi kamionak txikituta gelditu dira.

Batak besteari errua, kulpa, botatzen diotzute.

Garmendia:

Ara, Narbarte, gaizki ez artu
Garmendiak itzegiña,
gaur biok emen topatutzea
ez da izan atsegiña,
zenbaitek ofiziyoa dauka
beti ikasi-eziña,
guk txokerikan gaur ez genduan
zuzen etorri baziña.

Narbarte:

Onen bertsuak ez du izandu
asiera ta puntikan,
erdiyan ere iñork ez diyo
arrapatuko juntikan,
ni eskuñetik nebillen bañan
zu sartu ezkerretikan,
Berrobotarrak ditu aitzakik,
Narbartek ez du kulpikan.

Garmendia:

Ara, Narbarte, oaindik etzera
zeure okerraren jabe?
zu bezelaxen mundu onetan
asko ikusten dirade,
ta zintzo xamar gabiltzanak
berriz supritzeko gaude,
argi gorriya dagon garaian
zertako pasa zerade?

Narbate:

Goizuetarra txartzat jotzen gaur
Domingoren alegiña,
neure urtetan beti izan naiz
izugarri txofer fiña,
nere kulpara bota nai luken
argi gorrin utsegiña,
zuk e neria etzendun joko
zuzen ibilli baziña.

Garmendia:

Txoper ikasi ta obligazio
bete bear lendabizi,
norbere gustora ibiltze orrek
nei ez dit ematen grazi,
artzantzako egoki diranak
kamioi zar oikiñ asi,
berriz ere pasako da, bai,
makiñatxo bat desgrazi.

Narbate:

Sinistatua izango'uzute
onek egiya esanda,
lenago txutik gaunden gizonak
an jarri giñan etzanda,
txofertzara zertako juan giñan
biyok artzaiak izanda?
ezertxok ere ez du kulparik,
biek mozkorrak giñan-da.

* * *

Irigoyen: Domingo Garmendia: Ume alki-
latu batekin, berea balu bezela, Donostiako
parte zarrean eskean dabil emakume ijito
bat, eta au gertatua da. Ori gogoan artuta
iru bertso kantatu bear dituzu.

Garmendia:

Dudik ez dana, Alfontxo onek
ez diyo gaur eztanikan,
Garmendiangandik ez da faltako
eraantzun laztanikan,
ijito emakume bat ume bat
alkilatuta izanikan,
danak konforme baldin badira
eztago zer esanikan.

Mundu onetan tokatzen dira
lotsagarritzko uneak,
Alfontxo onek nei eman dizkit
Donostiako informeak,
aurrak eginda gero besteai
igual uniformeak,
merezi ez dun makiña batek
izate'ituzte umeak.

Alfontxo, zuk esan dezunakin
danok arritu gerade,
ijito bat eginda dagola
besteren umean jabe,

gure lurrean jende-klase oi
aiñ ezagunak dirade,
ijitoak berak e umetik
sarri osatzen dirade.

* * *

Irigoyen: Narbartek beste iru bertso: zer
egin bear dute senar-emazteak alkarrekin
pakean bizi izateko?

Narbarte:


Probatu arte nik nundik esan
ezkontzaren berririkan?
ez dakinari galdatzia da
gaur, Alfonso, alperrikan,
zenbaitek beintzat izaten dute
bizi-eziñ ederrikan,
senarrak ez baldin badu ekartzen
tabernatik dirurikan,
emaztekiak esaten diyo:
zu etzâ mozkor besterikan”.

Gaztegandikan kariño artzen
asten badira ederki,
oriyek norla bizi leitezken
gure Jainkuak badaki,
nerone ere ezkonduko naiz,
ez kuidadorik iduki,
Maritxo orrek zein senarra artu
berak ederki badaki.

Zenbait senar-emazten biotzik
Narbartek ez du poztuko,
bañan, gaxuak, bertsolari onek
gaur etzaituzte nastuko,
lenago xuxen dabillanikan
nik ez det aldrebestuko,
zuen biotza pake badago
baita zeruan sartuko.

* * *

Irigoyen: Bukatu dute saioa Garmendiak
eta Narbartek, eta orain kantatu bear dute
Lazkao-txiki eta Xalbadorrek.



Uztapide, txapela irabazitakoan



Lazkao-txiki, bertso-kantatzen

LAZKAO-TXIKI TA XALBADOR

Irigoyen: Puntua Lazkao-txikiri:

Irigoyen:

Andreak agintzen du
etxe geienetan,

Lazkao-txiki:

ori sinisten dizut,
Alfonso, benetan,
ta sinisturikan nago
zure esanetan,
nola galtzak dauzkagun
oraingo modetan.

Irigoyen:

Igeldoren azpian
dago Donostia,

Xalbador:

hori ez dago, Alfontxo,
enekin anztia,
bakotxetan hemen nago
ni ere pastia,
maizago etor nindaike
banauka astia.

anztia = aztua.
pastia = pasatua.

Irigoyen:

Au bezelako erririk
ez dago munduan,

Lazkao-txiki:

toki ederren batian
gu gaude orduan,
ni ere negon ori
esateko asmuan,
aitatu ezpazendu're
pentsatutzen nuan.

Irigoyen:

Piñua ikusten da
gero ta geiago,

Xalbador:

orai mendi hoietan
ez da asko pago,
direnak Matusalen
baino zaharrago,
geienak lengoak dira,
oraingoik ez dago.

* * *

Irigoyen: Ofizioa emango diegu orain:
Lazkao-txiki izango da baso-zaitzallea, mendiko guarda; eta Xalbador, herriz, guardaren baimenik gabe arbolak botatzen ari dan baserritarra.

Lazkao-txiki:

O, mendi-zale nere laguna,
etzera portatzen jator,
zeure kasako libertadea
ekarri dezu derrior,
ez al dakizu egun guztian
baso-zai naguela or?
permiso gabe egurrak mozten
zertan zabilta, Xalbador?

Xalbador:

Permisioa eskatu nizun,
oroit dut nik egun hura,
bainan zuhaure aldetik beti
baitzabiltza zu ardura,
ene galdea entzun eta zuk
zimurtu duzu sudurra,
nik familia berotzekotan
nunbaitik beaut egurra.

Lazkao-txiki:

Lagun Xalbador, nere (i) esanez
arren etzaitez atzendu,
baimenik gabe dabillen batek
nun-nai ere ondatzen du,

zuhaure aldetik = zerorren aldetik.
ardura = maiz, sarritan, askotan.
beaut = bear dut.

nik pobre bati ez nioke nai
etxeko ogirik kendu,
oinbat fabore egingo nizun
eskatu baldin bazendu.

Xalbador:

Eskatu nizun nola hortan zuk
baiteraukazu almena,
bainan zuk ere ez duzu egiten
manatua zautzun dena,
eta gero hor zerbitzatu
bearretan ez daguena,
batere bearrik eztaukanari
ematen duzu baimena.

Lazkao-txiki:

Bañan, Xalbador, etzaitzela
litxarkerietan ari,
neri ogia kentzeko hide
txar bat nola dezun ori,
pentsatu zazu, ortik ez daukat
ez premiyo ta ez sari,
eta debalde gero egurra
orrela dabillenari.

baiteraukazu = baitadukazu.
manatua = agindua.

Xalbador:

Biguintasunik ez duela dakit
guarda jaun hunen biotzak,
gero bazterretik izitzen
gaituela hunen bozak,
ni bezalako miserableai
zendako erakutsi hortzak,
egurrik eiten eypadugu guk
denak hilen gaitu hotzak.

* * *

Irigoyen: Lazkao-txikik orain iru bertso
pelota-jokuari.

Lazkao-txiki:

Joko-maitea, ematen dizut
milla esker ta grazia,
ez dakit nundik sortua zeran
bañan lur ontan azia,
beste aldera utzitzen det nik
kirolen alde guzia,
zu baizerade joko polita,
txukuna eta garbia.

Zenbait partidu jokatu ote
da gu gauden toki ontan,
jende guztiyak artutzen ditu
zoriontsu ta txalotan,

ta ikusleak egoten gera
arritzen eta gogotan,
gazteak ere, al badezute,
segi zazute pelotan.

Ara azkenik joku on oni
nere ongi-etorria,
pixka bat galtzen ari zerala
ala nago igerria,
bañan berriro jendea bere
zalez da pozez jarria,
gu bizi geran artean segi,
pelota maitagarria.

* * *

Irigoyen: Xalbadorrek bertsolari on bat
izateko doairik premizkoenak zeintzuk di-
ran esango digu iru bertsotan.

Xalbador:

Ni erantzuten zuri, Alfontxo,
orai bainago hasia,
Jainkoak eni ere eman daut
bertsolarizko grazia,
gauza bat bada denen aurrean
hortako premi hartzia,
segurtamena bere buruaz
ta gainera ausartzia.

segurtamena = segurantzia.

Bertze bat ere erranen nuke
banerauka ahalmenik,
ote da hemen nik baino hobeki
gauza hori dakienik?
bertsolariak umila izan
bear bailuke maizenik,
eta bertzeri alaz ez esan
entzun nahi eztuenik.

Nik bertsolari ederra franko
denboran badut entzuna,
eta beti nik bilatu izan dut
heiekin alkartasuna,
bertsolari bat ezpada ere
indarrez handi ta una,
ez bedi izan, Jainkoaz otoi,
bere eletan lizuna.

* * *

Irigoyen: Bukatu dute saioa Lazkao-txiki
eta Xalbadorrek, eta azkenez etorri bear du-
te Mattin, Mitxelena ta Lopategi, irurak.

erranen = esango.
banerauka = baneuka.
alaz = ahalar, al bada.
eletan = itzetan.

MATTIN, MITXELENA
TA LOPATEGI

Irigoyen:

Eztia zirudien
barteko muxuak,

Mattin:

neri puliki eman nau
etxeko atsuak,
aipatu nauzkielarik
egungo pausuak,
ez sobera maitatzeko
Gipuzkoko'usuak.

Irigoyen:

Illargian zer dagon
iñork ba al daki?

Mitxelena:

oraindik ez digute
ori erabaki,
esaten dute ekusi
bear dala aurki,
Jainkoak nai duan arte
kontuan eduki.

egungo = gaurko.
sobera = sobra, geiegi.

Irigoyen:

Txofer txarrak dabilta
amabitik amar,

Lopategi:

argaitik ez dabilta
uste bezin bakar,
gauza onik gauz orrek
sekula ez dakar,
ni ortik aparte naiz
Jainkuari eskar.

Irigoyen:

Zirikatzalle onak
zeraten ezkeru,

Mattin:

bertziak ala direla
nik nuen espero,
hortaratuak gira
gu hemen gaur gero,
ta ni idurikuak
dira beste oro.

Irigoyen:

Umorea munduan
da gauzik onena,

ni idurikuak = nere antzekuak.
beste oro = beste danak.

Mitxelena:

eta txarrena usten det
biotzeko pena,
pozan pozez bizi dek,
jaunak, Mitxelena,
iñoren inbiririk
iñoiz ez dubena.

Irigoyen:

Gipuzkoan badira
arraunlari onak,

Lopategi:

ondo ezautzen ditu
toki ontan dagonak,
oien ekitaldiak
nola ez diran bromak,
munduan ezaun dira
olango gizonak.

* * *

Irigoyen: Mattin, Mitxelena ta Lopategi, irurak, ezkongai zaudete, eta zuen aurrean dezuten neskatxa gazte bati ezkontzeko mandatu egin bear diozute. Mattin da pelotaria: Mitxelena, artzaia; eta Lopategi, ijito aberatsa.

Mattin:

Iru ezkongai bilduak gira
mahin gain huntan batera,
ta orain deliberatu dugu
andregai bat billatzera,
pelotaria hainon gizon
pulistagorik ote da?
ni segurik hartuko nauzu
txikiz konforme bazera.

Mitxelena:

Beira, neskatxa, pelotatikan
etorri txarrak badaude,
ordu batzutan poza daukate
da bestietan naigabe,
ni artzai nabil mendi-gañetan
lujo aundirikan gabe,
baño neurekin biltzen bazera
ondo biziko gerade.

Lopategi:

Iru dituzu zeure aurrian,
zein da iruretan obe?
bat da artzaiña bere ofiziyoz,
eta pelotari trebe,
ni ijitua errazatikan,
kotxe ederraren jabe,
ondoan nikin biziko zera
lanik bate egin gabe.

mahin = mai

Mattin:

Nere erranak entzun zatzue,
hemengo neska prestuak,
diru xoilain ez dira iten
emakumien gostuak,
nik diruak ekarriko tut
pelotan irazitakuak,
ta Mitxelena naitaoko duzu
maite ba'ituzu pixuak.

Mitxelena:

Gu bizi geran borda zarrari
eduzkiak dir dizkio,
goizean jeiki orduko "eun on"
bordari esaten dio,
arkume eta gazta naikua
d'elkarrerri amorio,
nik galdetzen det: nor bizi laiken
gaur gu bañan obekio?

Lopategi:

Gauza orretan esango dautzut
gaur entzun bear dozuna,
aize-eguzkiyak artutzen ditut,
ederra dot osasuna,
ona emen bada, neska maitea,
bear dozun maitasuna,
bi auek ezin leikie izan
nik dodan berotasuna.

diru xoilain = diruz bakarrik.

Mattin:

Diru izanta're neskari etzaio,
ez, ijitua gustatzen,
bertze hau berriz mendi gañean
han dabil ardien zaintzen,
bainan nerekin balin bada
neskatxa bat esposatzen,
igandero ibiliko da
herriz-herri pasiatzen.

Mitxelena:

Len esan dizut, artzantza ez da
lujo aundiyan jazteko,
bañan munduko bizi-moduai
garbi asko ehusteko,
da ondorenen datoztenari
euskeraz erakusteko,
leku oberik ote litake
zerua irabazteko?

Lopategi:

Ara kontseju eder oiekin
jendia zelan prestatu,
baña arpegi beltz eder auxe
zuri zelan ez gustatu?
eta gañera nire diruak
ezin gengikez gastatu
semeak pranko nai badituzu
ijituakin nastatu.

* * *

Irigoyen: Mattin: zure seme gaztea gaur
lenengo aldiz dioa lantegira. Aita zeran al-
detik, zer esaten diozun iru bertsoan kan-
tatu bear dezu.

Mattin:

Egun lanerat abiatzen zait
seme on eta prestua,
fabrikarako izatu baitu
ttipi-ttipitik gostua;
hauxe, semia, goguan har zak
zinez ta justu justua,
lagunekilan beti atxiki
etxeko errespetua.

Nolazbeit ere bear baitugu
irabazi guk bizia,
atsegin diat taller horretan
ofizioan hastia,
kontseilu batzuk hale on dituk
nola hi aizen gaztia,
maitetasuna beti atxiki
len aitari ikasia.

Aizak, semia, kontseilatze' aut
nola bai aut hi laguna,
zortzi orenez bukatuko duk
tallerrian den eguna,

Egun = gaur.
atxiki = gorde.
hale = alare.

betidanik hi izan adi
guziendako ona,
eta gañera gero irakutsi
hi haizela euskalduna.

* * *

Irigoyen: Mitxelena: neskatz on eder bategin ezkontzeko zeunden. Mixioak izan dira errian eta zure emaztegaiak moja joateko erabakia artu du. Azken agurra iru bertsoetan.

Mitxelena:

Bost urte betez elkarren beira
egon gerade Maritxu,
da nik uste nun naitasunean
biok giñala berdintsu,
ni utzi eta beste bide bat
artzera omen zuaz zu,
mundu ontako poztasun dana
galdu biar al dirazu?

Zure gustua orrela izan da,
orretan segi al bada,
guziyok emen jo nai genduke
zeruko atien aldaba,
d'orazio ta maitasunian
nai degu egun eta gaba,
nik ez nezake kontrarik egin
oi zure gustua bada.

zortzi orenez = zortzi orduz.

Kristau arteko amoriyotan
da ain gauza serbitzala,
bañon danaren aurretik degu
Jaungoikuaren itzala,
len elkarrekin d'orain banaka
bear badegu guk ala,
berriz Jainkoak zeru aundiyan
alkarganatu gaitzala.

* * *

Irigoyen: Lopategi: gaur dan egunean nekazariaren alde asko itzegiten da; bañan egin, ezer gutxi. Iru bertso kantatu bear dituzu ortaz.

Lopategi:

Nekazarien alde beti da
guzurra edo demanda,
ori berêla ikusiko'zue
baserri aldera juanda,
alperrik gabiliz beti lanian
daukagun dana emanda,
diru guztiyak kalera duaz
kopla batzuek esanda.

Aspaldi baten izan genduen
guk zertxobaiten ustia,
baña penetan jartzekua da
kasu auxe ikustia,

txalarengatik ez dogu artzen
iñoiz bear dan guztia,
eta (i) alan be karnazeritan
okela oso garestia.

Zerbait ein bear dogu guztiyok,
galduak gera bestela,
gure biotza garbiya degu,
ezta ezertan ustela,
begira ortik koperatiba
asko sortu direzela,
guk ere danok bat egin daigun
beste batzuek bezela.

* * *

Irigoyen: Eta onekin bederatzi bertsolariak bukatu dute, eta orain Juraduak zerbait erabaki bear du. Bitartean zai egon, amar minutuko deskantsua izango degu, erabaki ori artu bitartean.

* * *

(*Juradua etorritakoan*) Juradua bildu da eta erabaki au artu du: Iru pasatzen dira aurrera seguru, eta oriek dira Lazkao-txiki, Mitxelena eta Xalbador. Beste birekin saio bat egingo degu, ikusteko bietatik zein

dijoan aurrera. Bi oiek dira Lopategi eta Mattin.

Mesedez, Lopategi eta Mattin, etorri zaitzte mikrofonoaren aurrera, eta lenbizi zotz egingo degu bien artean zer ordenatan kantatu bear duten jakiteko.

(Zotz egindakoan) Lopategi lendabizi, eta bigarren Mattin.

LOPATEGI TA MATTIN

Irigoyen: Asteko, alkarri puntu pare banna jarriko dizkiote, batak besteari erantzunaz:

Lopategi:

Anoeta onetan
gustora al zaude?

Mattin:

nola egin nauzu zuk,
Lopetegi, galde?

Lopategi:

euskera ointxe ein zaigu
erriyaren jaube,

Mattin:

ta bazkaldu nahi nuke
gaurkuan debalde.

Mattin:

Bazkal aurretik fini da
gaurko nere lana,

Lopategi:

ezta uste orixe
nik gaur daukadana,

Mattin:

pisua erortzen baita
gaztiarengana,

Lopategi:

aprobetxatu zazu
Alfonsok emana.

Lopategi:

Txiki xamarra zera
baña buru azkarra,

Mattin:

gaur hala duena hemen
ni ez naiz bakarra,

Lopategi:

estimatuko nuke
nik zure indarra,

Mattin:

oraino badaukagu
zerbeiten biarra.

Mattin:

Burua izatia
hemen ez da aski,

Lopategi:

txapela jantzirikan
etzabiltza gaizki,

Mattin:

zuk ere toki ona
bazenuke naski,

Lopategi:

Donostira zeñ ezta
etortzen amesti?

* * *

Irigoyen: Orain Mattin emendik kanpora eramango dute entzungo ez duen toki batera. Lopategik kantatu dezan. Mesedez eraman zazute kanpora Juradokoak kartzela moduko ortara.

(*Eramandakoan*) Izkutatu dute. Lopategi: antzematen diozu zure seme txikia kezka batekin dabilela: aurrak nola datozen mundura. Zerbait erakutsi bearrean arkitzen zera, eta iru bertso kantatzen dizkiozu.

Lopategi:

Gauzak egoki egitearren
dozu ainbat borondate,
orrela dira gaur egunian
euskaldun ainbat izate,
kezka orretan ikusitzean
nik geiago zaitut maite,
duda guztiyak azaldutzera
aitagana etorri zaite.

Semeak zelan sortutzen diran
au galdera garestia!
itz legunetan azaldutzeko
aitak badizu ustia,
senar-emazte danak emanik
maitetasunik guztia,
gero Jainkuak egiten degu
atzekaldeko guztia.

Eta olaxe gabiltza danok
maitasunaren lanian,
frutua sortzen maitasunakin
artu eta emanian,
ez naiz bearbada ondo agertu
esplikaziyo andian,
gauzak obeto jakingo'ituzu
ezkondutzen zeranian.

* * *

Irigoyen: Mesedez abisua bialdu Mattini datorrela.

(*Etorritakoan*) Mattin: antzematen diozu zure seme txikia kezka batekin dabillela: aurrak nola datozen mundura. Zerbait erakutsi bearrean arkitzen zera, eta iru bertso-tan kantatzen diozu.

Mattin:

Nere semiak jakin nahian
ezin kendu du burutik,
gure Jainkuak lehen personak
egin zitian lurretik,
ta ori den'ondo ikasitzeko
oino denbora baduk ik,
beste guziak etorri gaituk
Adan ta Ebaren ondotik.

Bainan halere hau jakin gabe
nere semea ez da bizi,
mundura nola etortzen diran
nunbeitik nai du ikasi,
bide pixka bat eman gabe
nik ezpaitut nahi utzi,
zerbeit e gisaz hau esplikatzan
laster bearko dut hasi.

Nere semia, gazte haiz eta
deraukak buru argia,
hunuen pentsatzen asko egunez
gogoetan ibilia,
ikusi al dituk bein e alkartzen
iñun arra ta emia,
heiek bezala ibili eta
etorritzen dek umia.

* * *

oino = oraindik.
deraukak = dadukak.

Irigoyen: Bukatu dute saioa, eta berriz ere Juradua bilduko da.

(*Juradua atzera agertutakoan*) Artu du Juraduak erabakia: Aurrera pasatzen da Mattin.

ARRATSALDEKO LENENGO SAIOA

Xalbador

Lazkao-txiki

Mattin

Mitxelena

AGURRA

Irigoyen: Arratsaldeko bertsolariak ordena ontan kantatu bear dute: Lenbizi, Xalbador; bigarren, Lazkao-txiki; irugarren, Mattin, eta laugarren Mitxelena. Bakoitzak, bana-banaka, urte berriari agur bana botako dio. Xalbador, emen dezu mikrofonoa.

Xalbador:

Ordu gutxi du oraindanikan
hasi duela urtea,
ez dut eskatzen izan dadien
dena zorion betea,
ez eta ere eken dezaikun
bizi-moduko nekea,
eskatzen diot eman dezaikun
osasuna ta bakea

Lazkao-txiki:

O, urte berri, aurtxo gaztea,
gaur zera jaio ta asia,
bildurgarri zait oraindik dezun
zeure denbora luzia,

biotz barnetik eskatzen dizut
osasuna ta bizia,
ala komeni ez baldin bada
ondo iltzeko grazia.

Mattin:

Gogoa ilun dadukat eta
hasten naiz frango nekean,
halere denak barkatzen dira
hola hasten den urtean,
lagun guziak maite ditut nik
biotza bete-betean,
eta denekin nai nuke bizi
adiskide ta bakean.

Mitxelena:

Iñor ez gera onuntz etorri
ez juateko sekula,
mundu pittiñ au aintxen degu ba
gauza pixka eta aula,
ta pentsatzen det guetakon batek
aurten jua bearko dula,
da zeru-gañez gertatzen bada
andik lagundu deigula.

PUNTUAN

Irigoyen: Asteko, bakoitzari puntu biña
ipiñiko dizkagu.

Irigoyen:

Itxasoko izarra
dutela gidari,

Xalbador:

ilunbean dagonak
beiratu berari,
zerbait baliatzen da
hor dabilanari,
gauza txarrik ez dakion
bidean etorri.

Irigoyen:

Esan zaidazu baietz,
ilko naiz bestela,

Lazkao-txiki:

orduan zu're zaudez
peligroz orrela,
ikusitzian gauzan
baitan zabiltzela,
baietz esango dizut
anaia bezela.

Irigoyen:

Sartuko al ziñake
fraile komentuan?

Mattin:

horren pentsatzen ai naiz
jarrita kontuan,
han ere bizi litake
naski deskantsuan,
han dagozin geienak
baitira zeruan.

Irigoyen:

Albiste bat dakarkit
amorez betea,

Mitxelena:

nik nai nukiena da
zer dan esatea,
amoriyua ez da
ain gauza kaltea,
berak nai diratena
neuretzat ote'a?

Irigoyen:

Zuk egiten al dezu
oiean ametsik?

Xalbador:

gauza hortan ez daizut
esango ezetzik,

dagozin = dauden.

gaur ere atzartua
han nindagon goizik,
barta ere ez dut egin
ametsikan baizik.

Irigoyen:

Neskatxa gazte askok
arpegi leguna,

Lazkao-txiki:

gaztea dala ortik
dauka ezaguna,
izan dedilla gero
biotzez biguna,
oi da mutilzarrori
komeni zaiguna.

Irigoyen:

Neguan izotza ta
Maiatzean intza,

Mattin:

orain haren ihesi
gu hemen gabiltza,
zure erran hori nik
artuko dut zintzat,
bertzela enindaike
gisa hortan mintza.

atzartua = esnatua.
nindagon = negoan.

Irigoyen:

Abarkak eta bruxak
oso galdu dira,

Mitxelena:

orain ez gera bizi
lengo alderdira,
geienak jetxi zaizkigu
bai noski erdira,
ez genduke kalteko
lenguak balira.

OFIZIOA

Irigoyen: Orain laurai ofizioa emango diegu, eta iruna bertso kantatuko dituzte. Gipuzkoako erri txiki bateko larogei urteko senar-emazte baserritar batzuek lau seme dituzte: zarrena, apaiza da; bigarrena, tratalaria; irugarrena, filarmonika-jotzallea; ta laugarrena, nekazaria. Apaiza, tratalaria ta filarmonika-jotzallea Donostian bizi dira, eta nekazaria, berriz, bere gurasoekin baserrian. Baña nekazariak ere baserriko lan gogorrenkin aspertu dala, eta Donostiara bizitzera etorri bear duala dio. Lau senideak bildu dira gaur emen, eta jardunean ari dira erabaki eziñik gurasoekin eta baserriarekin zer egin.

Xalbador da apaiza; Lazkao-txiki, tratalaria; Mattin, filarmonika-jotzallea; eta Mitxelena, nekazaria.

Xalbador:

Basarri hori salba dadiyen
zerbaiten bearra badu,
seme guziak ezin ordea
lan egiteko izandu,
saia, anaiak, hantxet lanean,
etxia ez dadin galdu,
nik elizatik eingo zaituztet
ene otoitzaz lagundu.

Lazkao-txiki:

Gure baserri maitagarriya
maite izan degu beti,
gu Donostiyan biziya gaitik
ikusitako nai degu zuti,
nik e laguntza pozikan egin
nezake nere parteti,
aita ta amai laguntzarren
tratoko irabaziti.

Mattin:

Geure familia maitagarriak
lau seme pulit baditu,
soinulari itia obe zela
neri zautan iduritu,
ta oi zertako nere amak ere
soñua maite baitu,
il-kanpana baino naio du
filarmonika aditu.

Mitxelena:

Bat apaiza da kale aldean
jende gaixtua ontzeko,
eta bestia tratalaria
ditunai sosak kentzeko,
irugarrena soñua jota
mundua engañatzeko,
ai zer nolako irukua dan
etxiai lagundutzeko!

Xalbador:

Anai hauk ez ditut nik jetxiko,
orai jarri naiz etsita,
astean behin egiten dute
baserri hortan bisita,
nola etxia galtzen ari den
penarekin ikusita,
nihaur banoa arat lanera
sotana hortxet utzita.

Lazkao-txiki:

Tratalariak zer sufritzen dun
aitortuko det aizkenik,
nekazaria beti eskian,
besteak oi egiten dik,
eta apaizak eskatuko dit,
or ez dago zer esanik,
ta aizkenean oen akatsak
beti pagatzen ditut nik.

nihaur = nerau.

Mattin:

Aita ta amaren ondotikan ni
partitu nintzen ondarrik,
baserrian lan egiteko
ezpaineraukan indarrik,
bainan biziak alaitasuna
ere pixka bat bear dik,
zorionik ez duk izaten
lanaekilan bakarrik.

Mitxelena:

Auen iruren karrera zer dan
nai al zenduteke jakin?
ni bakarrikan or aritzen naiz
baserrian gogor da pin,
auek juan da gurasoari
lore ederrez itzegin
da billatze'idan puskik onenak
jan da berriro aldegin.

Xalbador:

Zuek iruak maiz baserrira
zatozte lan egitera,
hazi zaituzten tokiarentzat
ez al zaizute sobera!
familiako segida ona,
otoi, ez utzi galtzera,
etxe hortatik bear ginuke
bertze apez bat atera.

ondarrik = azkenik.
ezpaineraukan = ezpainedukan.
lanaekilan = lanarekin.

Lazkao-txiki:

Baserrikoak kalera nai du,
bestea lanetik izu,
o, tratantea, zer eiten dezun
zeorrek bakarrik dakizu,
abade anai, al dan ongien
konpon gaitezen ni ta zu,
nere tratoko tranpa pixarrak
barkatu biar dirazu.

Mattin:

Ceure familia hau dagon bañon
alaiagoak nun dira?
ama zarra're azkar etortzen
baita ba gure erdira,
begi-kolpian hantxe jartzen da
beti Mattini begira,
filarmonika jotzen badet nik
denak dantzan hasten dira.

Mitxelena:

Gue baserriya lagunik gabe
daukagu lurpera juna,
iru anaikin kontatzen det da
bat bakarrik ez laguna,
bai apaiza ta bai tratalari
da berdin soñuba duna,
nik nai nuke ba oiek utzita
atxurak astintze'ituna.

XALBADOR TA LAZKAO-TXIKI

Irigoyen: Bukatu dute saio au eta orain aritu bear dute Xalbador eta Lazkao-txikik. Eta nola ofizioa emango diegun biai besteai emango diegun bera, Mattin eta Mitxelena kartzela moduko ortara eraman bear dituzte.

(*Mattin eta Mitxelena eramandakoan*)
Orain Xalbador eta Lazkao-txikiri ofizioa emango diegu. Au da: biok langilleak zerate, ta Alemaniara joateko atera zaizute kontratu on bat. Emen baño bost aldiz geiagoko jornala eskeintzen dizute. Xalbador, zu Alemaniara zoaz; baña, Lazkao-txiki, zuk naiago dezu emen segitu, gutxiago irabazita ere. Iruna bertso alkarrekin teman.

Xalbador:

Oi, Jose Migel, entzun nezazu,
estura haunditan nago,
holakorikan gerta ezpalitz
askotaz nuen naiago,
Alemanira lan egitera
orai baitut joan-gogo,
irabaziak han omen daude
bortz alditan haundiago.

estura = estuasun.

Lazkao-txiki:

Nere laguna, ibilli zaitez
anaikero eta legez,
irabazien ots berri oiek
zabaldu ziraden aurrez,
ez al zerade eskarmentatu
zu urrutiko intxaurrez?
joan bitartean amalau dira,
ta joandakuan baterez.

Xalbador:

Prueba txiki bat egin-bidez nik
ikusiko dut mundua,
nik deraukatan esperantza ez da
oraino ere galdua,
egon zaite lasai zu, otoi,
ez dut galduko burua,
Eskualerrian baliatuko dut
han irabazi dirua.

Lazkao-txiki:

Zeure gogua orrela bada
o, nere laguna, segi,
bañan an diran esperantzakin
etzaitz poztu geiegi,
Euskalerrriak beronek dauka
landutzen oinbeste premi,
emen ere izango dezu
zuretzako ainbat ogi.

deraukatan = dadukadan.

Xalbador:

Aldatu behar halarik ere
asiz geroztikan lurrez,
hemendik goiti abiatuko
naiz harara buruz urez,
zer nahi duzu? ni ere gose
gizon-galgarri den urrez,
ta nihaur ere hementxe nago
harek galtzeko beldurrez.

Lazkao-txiki:

Ikusten dezu Alimanitik
dagon diru-etorria,
beraz oinbeste gustatzen zaizu
zillarra eta urria,
erdiarekin bertan segitu
ez al zenduke obia?
zure izerdia an ixurtzea
ez al da penagarria?

Irigoyen: Bukatu dute saioa Xalbador eta
Lazkao-txikik, eta mesedez deitu zaiezute
Mattin eta Mitxelenari, datozela.

harara buruz = aruntz.
nihaur = nerau.

MATTIN ETA MITXELENA

Irigoyen: Biok langilleak zerate, ta Alemaniara joateko atera zaizute kontratu on bat. Emen baño bost aldiz geiagoko jornala eskeintzen dizute. Mattin, zu Alemaniara zoaz; baño zu, Mitxelena, naiago dezu emen segitu, gutxiago irabazita ere. Bakoitzak alkarrekin iruna bertso.

Mattin:

Ai, Mitxelena, lagun maitea,
gaur nago zuri begira,
hau baño leku askoz hobiak
irabazteko badira,
bainan zure begiek dute
hor gelditzeko dirdira,
nik beldurrik ez daukat eta
banoa Alemanira.

Mitxelena:

Esaten dute urruti oitan
dagola bizi samurra,
ni neroni're ez nago, jaunak,
aruntz juateko beldurra,

bañon ainbeste lagun oneri
ein bear diot agurra,
da lenbiziko gorde nai nuke
neune jaio nitzan lurra.

Mattin:

Ai, Mitxelena, esango zaitut
arrazoin horren gainian
zure lekurat etorriko naiz
gero ni're azkenian,
andregaiiaikin nahi du egon
beti aldamenian,
ni berriz askoz nahiago nauk
berriz heldu naizenian.

Mitxelena:

Andregairikan ez daukat eta
ez leza illundu kopetik,
gizonak bere asmoak beti
beurekin izaten ditik,
aita ta ama dauzkat zartuak
daudezenak erdi zutik,
eta ni bertan geldituko naiz
aiei laguntziagatik.

Mattin:

Mundu hunetan bizi-bearrak
baditu bere konduak,

gu gira askoetan
erriz kanpo egonduak,
eta zerbait irakusten du
kurritzen degun munduak,
Mitxelenak e ara juan eta
galduko luzke kiluak.

Mitxelena:

Sekulan ez naiz aberats izan
da gaur e nazu pobrea,
bañan etxian zer gerta ere
pezetatxo bat gordea,
gaitz gaiztoren bat sortu bailaie
osasunaren ordea,
eta pakean bizi ezkeru
zer dezute gauz ohea?

Irigoyen: Saio au bukatu dute, eta orain
lau bertsolariak, bana-banaka, gai bera kan-
tatuko dute; eta ortarako iru, kartzela-mo-
duko ortara eramango dituzte. Xalbador
lendabiziko emen geldituko da.

XALBADOR

(*Beste irurak eramandakoan*) Izkutatu dituzte eta Xalbadorri gaiak jarriko dizkiegu. Asteko, puntua jarriko diogu.

Irigoyen:

Jainkoa lendabizi,
euskera urrena,

Xalbador:

ez jakin horietan
zoin dutan maitena,
biak maita nezazke
banu ahalmena,
eztitutel'eiten ahal
ematen daut pena.

* * *

Irigoyen: Bildurrari bi bertso:

Xalbador:

Alfontxo, ene gaurko kasua
nondikan duzu zuk jakin?
bildurra delako gauza txarra
batek badauka berekin,

eta erraiten ahal nuke nik
nihauren buruaz berdin,
ene barnean daukat gaur eta
ez du nai hunek aldegin.

Jainko Jaunari egiten diot
otoitz gartsu ta beroa,
beldur sobera ez dadin izan
altxa dezagun gogoa,
bainan bildurrak ere badauka
nunbaitik bere erroa,
batere bildurrik ez duena
ere deitzen da eroa.

* * *

Irigoyen: Orain zure emazte il zanaren so-
ñekoari beste bi bertso.

Xalbador:

Pentsa zazute alargundu bat
ez daike izan urusa,
dolamen hunek, oi!, ez dezala
ainitz gehiago luza,
orai urtea ziloan sartu
andreñoaren gorputza,
haren arropa hantxet dilindan
penaz ikusten dut hutsa.

nihauren buruaz = neronen buruaz.

beldur sobera = beldur geiegi.

urusua = zorionekoa (heureux).

dolamen = naigabe, samintasun.

dilindan = zintzilik.

Geroztik nihaur ere nabila
guzia beltzez jantzirik,
ez dut pentsatzen nigar eiteko
ene begiak hesterik,
ez pentsa gero, andre gaxoa,
baden munduan besterik
zure arropa berriz soinean
har dezaken emazterik.

* * *

Irigoyen: Eta, azkenez, kontatu iguzu iru bertsotan izkirimiri bat, txiste bat. Ez du ajolarik gordin samarra bada ere, baldin txukun kontatzen badezu. Minutu bat dezu txistea aukeratzeko. Beraz minutu batean zai egongo gera.

Xalbador:

Ahezke hortan lenago omen da
apaiz haundi bat izana,
jendeari par einarazteko
nehoiz beldur etzana,
bein batez ere egin baitzuen
hark izigarriko lana,
prozisiora mendira joan ta
han gelditu zen etzana.

nihaur = nerau, neroni.
hesterik = ixterik.
nehoiz = iñoiz.

Ez dela egia dirudi horrek,
kasik ez daike sinetsi,
zer parrak ere zituen gero
jenderi eginarazi!
mendi-gainian etzanta ditu
harek bi begiak hetsi,
lokartu zen ta artzain zar batek
zapetak dazko ebatsi.

Goizean lokartu zen eta
iratzartu zen atsaldez,
akidurarik haundienean
aurkitzen baitzen harabez,
gero so egin bere anker ta
zapatarikan baterez,
hasi zen artzainer ea hura zen
herriko apeza galdez.

Irigoyen: Bukatu du saioa Xalbadorrek,
eta mesedez deitu Lazkao-txikiri.

hetsi = itxi.
lokartu zen = lo artu zuan.
ebatsi = ostu, lapurtu.
iratzartu = esnatu.
arkidurarik = nekerik.
harabez = naigabez.
so egin = begiratu.
anker = anka.
artzainer = artzaia.

LAZKAO-TXIKI

Irigoyen:

Jainkoa lendabizi,
eusker a urrena,

Lazkao-txiki:

ori egiñ ezker o
egiten da dena,
ortik igestutziak
ematen dit pena,
oi litzake guztiok
ein bear gendukena.

* * *

Irigoyen: Orain bildurrari bi bertso.

Lazkao-txiki:

Zure mendean daukat barrena,
zu zerade gauz maltzurra,
edozein tokin, fiñetan ere,
sartutzen dezu muturra,
gaur ere zuk eman diguzu
egundaño ko egurra,
ikusten etzeradena bañan
burrukatzen ez xamurra.

Zuk galtzen dezu amaika aldiz
askoren eginkizuna,
berez motela dana aguro
menperatzen dakizuna,
gorroto biziz itzeiten dizut
gaur, o zu bildur lizuna,
gizon aundi ta fuertiak ere
menderatzen dituzuna.

* * *

Irigoyen: Orain, zure emazte il zanaren so-
ñekoari bi bertso.

Lazkao-txiki:

Nere emaztea falta det eta
ara soñekotxo bera,
sarritan ura ez dedalarik
etortzen zera aurrera,
zu etxean emen gelditu ziñan
ta emaztia lurpera,
len txuria ta alai ziñana
orain illun biurtu zera.

Bañan anima egongo al da
Jaungoikoaren onduan,
ain gaiztua ez baizan izan
eriotzako orduan,

nere emazte maitagarria
bizi zanian munduan
—milla esker, soñekotxoá,—
zuk estalitzen zenduan.

* * *

Irigoyen: Eta, azkenez, kontatu iguzu iru bertsotan izkirimiri bat, txiste bat. Ez du ajolarik gordin samarra bada ere, baldin txukun kontatzen badezu. Minutu bat daukazu txistea aukeratzeko.

Lazkao-txiki:

Euskalerrian bein gertatua
aitortu nai dizutet nik,
baldarrak geran gutxi ikusi
eta zabarrak izanik,
baserritar bat bein korreuan
feri alderuntz juanik,
itxaron apur-apur batean
ta kontatuko'izutet nik.

Polizia sekreta zan-da
eta trenean zijuan,
bizkar-gañean baserritarra
ukuitu zuen orduan,

ta ark eskuba an sartu zuen
txamarrako poltxekuan,
iru errial eman zizkion
eskalia zalakuan.

Ta poliziak ipiñi zion
zenbait aserrezko seta,
bere begira jarri zitzaion
zitaltasunez beteta,
gero zer gauza gerta zitzaion
txapatxua azaldu-eta,
muñ eman zion baserritarrak
santua zala uste-ta.

MATTIN

Irigoyen:

Jainkua lendabizi,
eusker a urrena,

Mattin:

hoixe da gauza bat
in behar duguna,
nik beti erraten dut:
“in zak hau, laguna,
nun-nahi erakutsi
beti euskalduna”.

* * *

Irigoyen: Orain bildurrari bi bertso.

Mattin:

Ni beti hola izatua naiz
jaioz geroztik lurrian,
nere gogua hola izan da
beti omore onian,

beti berdiña agertzen naiz ni
bai bestan hala lanian,
txikia arren ez naiz bizitu
ni nihoren beldurrian.

Nik eskatzen dut kuraje horrek
beti dezala aguanta,
eta hauxe're esplikatzeko
oino ez dago beranta,
arratsaldian huna jina naiz
bisteka ederra janta,
eta gogua alaia daukat
Las Campanas-a cranta.

* * *

Irigoyen: Orain zure emazte il zanaren so-
ñekoari bi bertso.

Mattin:

Gai batetikan besterat hunek
gaizki ekarri nau huna,
len arpegia alai nuena
ezarri bainau iluna,
hau da gauza bat biotzetikan
esplikatu bear deguna,
nik maite nuen arropa hauiek
ibiltzen zituen laguna.

nihoren = iñoren.

oino = oraindik.

huna jina naiz = onera etorria naiz.

Maite nuela nik esan nion
andreari esposian,
geroztik huna biak ederki
bizitzen ginen etxian,
hura il zan ta orai bizi naiz
sekulako tristezian,
arropak hemen daduzkat bainan
personaren eskasian.

* * *

Irigoyen: Orain kontatu iguzu iru bertso-
tan izkirimiri bat, txiste bat. Ez du ajolarik
gordin samarra bada ere, baldin txukun kon-
tatzen badezu. Minutu bat daukazu txistea
aukeratzeko.

Mattin:

Juan den astian izatua naiz
ni urrezko eztaietan,
berroitamar urte ezkondu ziela
zauden presuna hoietan,
ni bertsulari deitu naute ta
hara juan naiz lorietan,
gaztetasuna ikusten bainuen
zahar hoiien begietan.

esposian = esposatzian.

eskasian = faltan.

izatua = izandua.

lorietan = pozaren pozez.

Nik banakien bodada hori
lengo berdiña etzela,
larogoi urtetaraz geroz
presunek ba'ute itzala,
bañan gogua gazte zaukaten,
hek biek ere oxala,
baña besta egin nai zuten
gazte denboran bezala.

Emazteari oherakuan
hau etorri da gogora:
"Zu nereganat etorri gabe
ni ez naiz juango nihora,
berroitamar urte dituela
presatua ziñen, horra,
eta orai ez duzu presarik
hartze'uzu naiko denbora".

hek biek ere oxala = aiek biak ere ojala.
nihora = iñora.

MITXELENA

Irigoyen:

Jainkoa lendabizi,
euskera urrena,

Mitxelena:

biyak bildu bearrak
daude alkarrena,
ori da gure biziyak
emen dakarrena,
da gu indartzezkeroz
gauzik bearrena.

* * *

Irigoyen: Orain bildurrari bi bertso.

Mitxelena:

Mundu txar ontan bizi gerade,
neronek al dakit nola!
zenbait ordutan buru arin da
etzaigu batere ajola,
zabarkeriyak berotzen baidu
kristau bakoitzen odola,

pentsatu gabe gerogo zerbait
guretzako badagola,
zuek sinistatu sinismen ortan
neroni sendo nagola.

Seaskatikan batek eiten du
amaren galdezka otsa,
pixkat zutitzen dan garaiean
ua izaten da bildortza!
bañan munduan Jainkoan aurrez
ein bear bada aitortza,
mundu pittin au nola deguan
gauza pixka eta motza,
ni geientsuna bildurtzen nauna
izandu da eriotza.

* * *

Irigoyen: Orain zure emazte il zanaren so-
ñekoari bi bertso.

Mitxelena:

Nere emazte gaixoa il zan,
sekulan etzait aztutzen,
egunez-egun bizi-modua
nola dijuan laztutzen,
len bost peztakin pasatzen eta
orain amar gastatutzen,
orduan merke bizi gihan da
elkar gendun jostatutzen,
nere andrea il zen ezkeroz
ezertxok ez nau poztutzen.

Nere emazte il zaidan eta
ez nago beraz azturik,
gela batean ortxen daduzkat
beraren gauzak loturik,
sekulan etzait faltatzen aren
oraziyozko bururik,
ez da munduan zorion ori
partuko duan dirurik,
gure Jainkuak jarri gaitzala
berriz alkarganaturik.

* * *

Irigoyen: Orain kontatu iguzu iru bertso-
tan izkirimiri bat, txiste bat. Ez du ajolarik
gordin samarra bada ere, baldin txukun kon-
tatzen badezu. Minutu bat daukazu txistea
aukeratzeko.

Mitxelena:

Bertso bat emen kantatuko det
da lan dauka siñistea,
gaur goizetikan asi deguna
lana dago ekustea,
emen bertan e gertatu dana
sarrerak eskuz uztea,
ez al zan obe bear zuanai
aurrean erakustea?
bear duanak falta ta sobra,
ori ez al da txistea?

Gaur Irundikan zetorren trenak
bere martxa bat arturik,
ariyan gisa or Gaintxusketan
zeuden danak topaturik,
agintzalleak oker agindu
bañan etzegon malurik,
osasanakin gelditzen danak
nola ez daukan galdurik,
medikuk illez emandakuak
atera dira bizirik.

Gure etxeko bizi-modua
daukagu gastu debillan,
beira zazute gure andria
zeñen zurkeriz dabillan,
gauzak lotutzen badaki arek
sokaz edo korapillan,
bolsatik ezer ez gastatzetik
etzegon era trankillan,
litro bat ardo gaur eraman du
litro erdiko botillan.

* * *

Irigoyen: Eta onekin bukatu dute saioa
lau bertsolariak. Orain Juraduak bildu bear
du erabakia artzeko.

(Juradua atzera etorritakoan) Juradua bil-

du da eta erabaki du aurrera pasatzen dala
Lazkao-txiki.

Beraz orain azkenengo saioa egin bear
dute Uztapide eta Lazkao-txikik. Mesedez
etorri zaitzte biok.

ARRATSALDEKO BIGARREN SAIOA

Uztapide

Lazkao-txiki

UZTAPIDE TA LAZKAO-TXIKI

Irigoyen: Asteko, Uztapidek bertso bat botako du jendea agurtuaz.

Uztapide:

Arratsaldeon, anai-arrebak,
auxen da egun mardula!
zeñek siñistu gaur Anoeta
onela egon bêt zula?
orain añako bertso-goserik
etzan izango sekula,
dakizutena ori egiten
naiko lan badaukagula,
zuen biotzak pixka bat pozten
Jainkuak lagun daigula.

* * *

Irigoyen: Lazkao-txikiri puntua:

Uztapide aundia
dezu zuk gaur kontra,

Lazkao-txiki:

ni naguen maill ontan
konforme nago-ta,

lagun izatekotan
daukat gaur gogo ta,
zarragua dan partez
ez nuke nai bota.

Irigoyen: Uztapideri puntua:

Osasunez, Mañuel,
zer moduz zabilta?

Uztapide:

iya'ya sendatu da
lenago nun gaitza,
al baldin bada itxuraz
nai nizuke mintza,
alegiña egiteko
ematen det itza.

* * *

Irigoyen: Ofizioa emango diegu orain, ta alkarrekin teman iruna bertso kantatuko dituzte. Uztapide izango da larogei urteko aitona, eta Lazkao-txiki, berriz, aitonaren billoba. Emezortzi urte ditu onek, Lazkao-txikik, eta estudiantea da. Aitonak Euskal-erriko antziñako oitura garbiak goratuko ditu, ta billobak, berriz, gaurko aurrerapenak Aitona asiko da.

Uztapide:

Aitonak eta billobak orain
ditugu geren kantuak,
estudiante guziak ere
ez dira izaten santuak,
gaur moda asko dabilta,
gero inpernuko giltza,
artu arren komentuak,
zein biretatik zoazen, billoba,
ongi atera kontuak.

Lazkao-txiki:

Aitona ona ni ez nijua
gaur zu ofenditutzera,
nola zeraden guraso zar da
maite dezuen euskera,
al degunikan zuzen
zerbait mugi gaitezen
ikasirikan karrera,
beti lenian baldin bagaude
ziero ondatubak gera.

Uztapide:

Billoba, gauzak aitonak zuri
jarriko'izkizu aukeran,
gure oraingo bizimodua
dago zuen goraberan,

artu moda berriyak,
galtzen dira erriyak,
zu zabiltz oriyen eran,
jakin nai nuke karrera artuta
geo zer izandutzen zeran.

Lazkao-txiki:

Badakizu zuk lengo lurrean
guk bear degula bizi,
bañan nai nuke atzera dagon
lur maite au aurre-erazi,
berriari ekiñik,
lan pixka bat egiñik,
makina onak erosi,
lengo kontuan gaurko munduan
ezin gindezeke bizi.

Uztapide:

Nere billoba, zure bertsua
ez al zan aditzekoa?
ori usaia!, ematen zuan
arrosa Maiatzekoa,
bañan emen lekua
dadukazu bapua,
zeruaren antzekua,
gaurko mundua nola dan berriz
gerokua galtzekua.

Lazkao-txiki:

Ez dakit adelantu au degun
gauza txarra edo ona,
bañan pixkabanaka aldatzen
nola dijoan gizona,
lengo adelantuak
dirade juandakuak,
gaurkuak eztira broma,
bañan alkar maitatu dezagun
illoba eta aitona.

UZTAPIDE

Irigoyen (*Zozketa egin ondoren*): Orain Uztapide gelditzen da emen, eta Lazkao-txiki kartzela-moduko ortara eramán bear dute.

(*Lazkao-txiki izkutatutakoan*) Orain iru puntu jarriko dizkiogu Uztapideri.

Irigoyen:

Kantuz sartu nai nuke
zeruan iltzean,

Uztapide:

ala pentsatzen degu
ola ibiltzean,
baldin gertatzen banaiz
Alfonson itzean,
ez giñake izango
gu zorigaitzean.

Irigoyen:

Bururik ez duenak
txapelik bear ez,

Uztapide:

zertarako ibilli
jasotzen indarrez?

jende guzia emen
ari zaigu parrez,
ekarri egin det nik
baño eraman ez.

Irigoyen:

Zuretzat nai det bizi,
euskera maitea,

Uztapide:

euskera, neregana
erori zaitea,
nere biotza daukat
berakin betea,
nola nai dezu bera
gugandik juatea?

* * *

Irigoyen: Lau puntu emango dizkagu
orain, zortziko txikian bertsoa osatu dezan:
aukera, aurrera, minbera, euskera. Berriz
esango dizut: aukera, aurrera, minbera,
euskera.

Uztapide:

Euskaldunok geok dû
gauz ortan aukera,
galdutzia izango
litzake minbera,

oraindaño bezela
jarraitu aurrera,
sekulan ez liteke
ola galdu euskera.

* * *

Irigoyen: Uztapide: baserri on bateko seme zarrenak ezkondu egin nai du, ta dei egiten die inguruko baserrietako neskatxa gazte ezkongai guziei. Zu zera seme ori, eta bi bertso kantatu bear dituzu.

Uztapide:

Anai-arrebak, ara neri zer
jarri diraten orain gai,
baserriko maiorezkua naiz,
neska danari egin dei,
nolabait ere baserriyari
eusteko esposatu nai,
danari galde egin diet nik
ta iñork ez du esan "bai".

Emen geienak egiten dute
basarria adoratu,
iya garaya etorri da ta
batere ez da goratu,

al dakizute ezkontzeko zer
ein bêt dan zait gogoratu?
lendabiziko bear ginuzke
baserriyak mejoratu.

* * *

Irigoyen: Orain zure erriko elizako pon-
teari bi bertso.

Uztapide:

Bein da berriro gogoratzen naiz,
Arruako eleiza zarra,
zuregandikan artu bainuen
kristau-izaeran indarra,
oraindik ere nere fediak
badauka bere giarra,
Euskalerra au serbitutzeko
izan det zure biarra.

Ni Arruako semia bainaiz
esaera baterako,
lotsarik izan banu enitzan
ni andikan aterako;
zertako utzi bear nuen nik
barriyo ura berako,
bean aurrian sortu bainintzan
Jaungoikuen aurrerako?

* * *

Irigoyen: Orain gaua da, ta oiean lotan zaudela, esnatzen zaituzte il-kanpaiak. Iru bertso kantatzen dituzu.

Uztapide:

Auxen da lana!, gezur au orain
ezin biurtu egira,
ni ametsetan ibilli eta
gero esnatzian, begira,
pentsatu nuen: emaztia ta
semetxua emen dira,
eriotzak e ainbeste pena
eztu ematen urrutira.

Pena aundiya artu nuan, bai,
ni nola naizen umilla,
eta asiya nintzan aguro
oraziyo baten billa,
iru Aita-gure errezatutzen
ai nintzan ixill-ixilla,
nik esan nuen: oi, dana dala,
zeruan gerta dedilla.

Esan bezela, gerta dedilla
aingeruakin batian,
zeiñ elitzake pozez beteko
alako leku maitian?
guk ere gero sartu nai degu
zeruetako atian,
arratsian zein il dan jakingo'et
geok aruntza juatian.

Irigoyen: Uztapidek bukatu du saioa, eta mesedez Lazkao-txikiri deitu zaiozute datorrela.

LAZKAO-TXIKI

Irigoyen:

Kantuz sartu nai nuke
zeruan iltzean,

Lazkao-txiki:

ara joan leiteke bat
txintxo ibiltzean,
nik esan beaizut au
galdera batean:
lenbizi jakin nai det nor dan
zeruko atean.

Irigoyen:

Bururik ez duenak
txapelik bear ez,

Lazkao-txiki:

gauz ori nik, Alfonso,
banekien aurrez,
geuren buruan kontra
ai zera esanez,
guk e badegu burua
naiz txapelik izan ez.

Irigoyen:

Zuretzat nai det bizi,
eusker a maitea,

Lazkao-txiki:

biotza zuregana
daukat nik betea,
askok pentsatu arren
zu kolpez galtzea
eskatze'yot Jaunari
zu bizi zaitea.

* * *

Irigoyen: Lau puntu emango dizkizugu orain zortziko txikian bertsoa osatzeko. Auek dira: aukera, aurrera, minbera, euskera. Berriz esango dizut: aukera, aurrera, minbera, euskera.

Lazkao-txiki:

Asko egonagaitik
onekin minbera,
nik gauza ontan segi .
nai nuke aurrera,
beste izkuntzetan ere
badaukat aukera,
bañan nik geiagona
maite det euskera.

* * *

Irigoyen: Lazkao-txiki: baserri on bateko seme zarrenak ezkondu egin nai du, ta dei egiten die inguruko baserrietako neskatxa gazte ezkongai guziei. Zu zera seme ori, eta bi bertso kantatzen dituzu.

Lazkao-txiki:

O, inguruko neskatxatxoak,
nik asko zaituztet maite,
eta auzoan bizi izandu
geradenak oraiñ arte,
batzuei galde (i) egiñagaitik
askok ezetza diote,
ara mutilzar nola naguen
ni zuekin mediante.

O, neskatxatxo biotzekuak,
kontuak ongi atera,
pentsatutzea ez uste gero
guztiok bide batera,
baserriari goian lagata
juan nai dezute kalera,
alde batetik ortikan dator
gure izkuntzaren galera.

* * *

Irigoyen: Orain zure erriko elizako ponteari bi bertso.

Lazkao-txiki:

O, eleizako ponte maitea,
nago pozetan beteta,
zu ikustean nere barrena
beti jartzen da aseta,
lenago zure bitartez zerbait
iritxia badet-eta,
bertso gozo bat bota nai dizut
nik orrenbeste maite-ta.

Arriz egiñik zerade eta
urakin betia dena,
ta bisitatzen saiatutzen naiz
al nezakian maizena,
zu izan ziñan nere aurtzaroko
adiskide bat zuzena,
zuk busti eta ezarri bainun
orain daukaten izena.

* * *

Irigoyen: Lazkao-txiki: gaua da, ta, oiean
lotan zaudela, esnatzen zaituzte il-kanpaiak.
Ta iru bertso kantatzen dituzu.

Lazkao-txiki:

Lotan lasairik neguelarik
au da gertatu zaidana,
au da pentsatzen buru austia!
au nere buruko lana!

banaka eta triste jotzen or
dago elizako kanpana,
nere buruai galdetzen diot:
nor ote degu il dana?

Au entzutean baten biotza
beti jartzen da minbera,
arrisku ori denok daukagu
emen urtetik urtera,
baldin lo dala, Jauna, badezu
mundu ontatik atera,
kulpa guztiak etzitun eta
ar zazu aldamenera.

Kanpantorreko kanpai zakarra,
batere etzaitut maite,
doñu tristiak orrela jotzen
kontuan ibilli zaite,
neri're berdin gerta nezaikit,
nik noski bate ez uste,
arren, kanpanik etzazula jo
ni lotan nagon bitarte.

Bukatu du saioa baita Lazkao-txikik ere,
eta orain momentu batean Juraduak bildu
bearra dauka.

SARIAK

Irigoyen: (*Juradua agertutakoan*) Txapela UZTAPIDE-ren buruan segitzen du.

Emen daukagu gañera Gipuzkoako Gobernadore jauna, Gipuzkoako Diputazioako Presidente jauna ta Donostiako Alkate jauna, sariak partitzeko.

Au da Uztapidek jasoko duan guztia: lenbizi, Euskaltzaindiaren txapela; jasoko ditu gañera Informazio ta Turismoko Ministro jaunaren zillarrezko kopa, Euskaltzaindiaren amar milla pezeta, bi milla ta bosteun pezeta Donostiako Ahorro-Kaxarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, eta Fanderia-koak emandako magnetofon bat.

Bigarren saria, Lazkao-txiki: Gipuzkoako Gobernadore jaunaren kopa, bost milla pezeta Euskaltzaindiarenak, bi milla ta bosteun pezeta Donostiako Ahorro-Kaxarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, eta Itxaropenak emandako liburu-pilla bat.

Irugarren saria, Xalbador: Gipuzkoako

Diputazioaren kopa, iru milla pezeta Euskaltzaindiarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, milla pezeta Jose Lizarazu jaunak emanak.

Laugarren saria, Mitxelena: Donostiako Ayuntamentuak emandako kopa, bi milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, milla pezeta Jose Lizarazu jaunak emanak.

Bostgarren saria, Mattin: Gisasola etxeak emandako tabako-toxa; bi milla pezeta Euskaltzaindiarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, eta bosteun pezeta euskaltzale batenak.

Seigarrena, Lopategi: bi milla pezeta Euskaltzaindiarenak, milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak, eta *Club Deportivo Añorga*-k emandako erloju esnatzallea.

Eta gañerako beste laurak, bakoitzak artuko ditu bi milla pezeta Euskaltzaindiarenak, eta milla pezeta Gipuzkoako Ahorro-Kaxa Probintzialarenak.

Badaude beste sari batzuek ere:

Iru bertsolari gazteenai milla bana pezeta Bizkaiko Bankuak emanak. Eta oiek dira Lopategi, Garmendia eta Mugartegi.

Gañera, bertsolari gazteenak jasoko du

Zubiria jaunaren kopa, eta bertsolari gazteena, gaur kantatu dutenetan, Lopategi da.

Gaurko bertsorik onenari bi milla pezeta Gurelesa-k emanak. Sari ori irabazi du Lopategik.

ANTONIO ARRUE JAUNAREN ITZALDIA

Antonio Arrue jaunak: Esker milla Euskaltzaindiaren izenean Txapelketa Nagusi au antolatzen lagundu diguten guziei.

Orobat, Txapelketa ontarako esku-erakutsiak bialdu dizkiguten euskaltzaleei, ta berdin bai Naparroako bai Bizkaiako ta bai Gipuzkoako aurtengo Txapelketetan esku artu duten bertsolari maiteei.

Ta zorion ugariak Uztapide txapeldunari. Jaungoikoak gorde zaitzala urte askoan, Mañuel, euskeraren onerako.

Eta orain entzun zazute biotzaren barren-barrendik, biotzaren erdi-erditik, biotzaren biotzetik irteten zaigu oi u: Gora gure bertsolari jatorrak!!!

AZKEN AGURRA

Uztapide:

Berriro ere borondatia
badaukat nik lanerako,
zuek baño lagun oberik ez da
nere aldamenerako,
gure lan ori izan dedilla
euskeraren onerako,
berriz ere ni prest naukazute
zuen serbiziyaorako.

Lazkao-txiki:

Agurtzen ditut ezker ta eskubi
goikoak eta bekoak,
agurtzen ditut etxe-alde ta
ango sukalde txokoak,
urte askuan olaxen bildu
gaitezela Jaungoikoak,
milla esker ta agur ta agur,
entzule biotzekoak. (1)

(1) Onen urrena Xalbadorren txanda zan, bañan
etxeruntz abiatzeko presa zuan eta etzuan kantatu.

Mitxelena:

Euskalerrriya euskalduna da,
ori dadukagu beraz,
gure seaskan guk ez genduan
ezer ikasi erderaz;
oaiñ ere beroi zalla degu ta
geuria daukagu erraz,
zenbat baserri-txoko ta kalez
ola egiten da jolas,
euskaldunikan ez dan lekuan
gu ez baigerade kapaz;
euskaldun bizi biar genduke,
jaunak, egun eta gabaz,
beste batzuek atal onduan
jarrigatik gure trabaz,
egun batzuek pasatze'itugu
kezketan eta dardaraz,
bañan oraindik irri ta parra
egin gendake algaraz;
euskaldun geron guztiok anai
eiteko bagera kapaz,
gure izkuntza lurperatutzen
oraindik etzegok erraz.

Irigoyen: Eta, besterik gabe, agur guztioi
eta urte berri on! Agur, jaun-andreak!

ARKIBIDEA

ITZAURREA	9
GOIZEKO SAIOA	19
Asiera	21
Agurra	25
Lau puntuak eman-da	29
Mugartegi ta Arozamena	35
Garmendia ta Narbarte	42
Lazkao-txiki ta Xalbador	49
Mattin, Mitxelena ta Lopategi	56
Lopategi ta Mattin	67
ARRATSALDEKO LENENGO SAIOA	73
Agurra	75
Puntuari	77
Ofizioa	81
Xalbador ta Lazkao-txiki	86
Mattin eta Mitxelena	89
Xalbador	92
Lazkao-txiki	96
Mattin	100
Mitxelena	104
ARRATSALDEKO BIGARREN SAIOA	109
Uztapide ta Lazkao-txiki	111
Uztapide	116
Lazkao-txiki	122
Sariak	127
Antonio Arrue jaunaren itzaldia	130
Azken agurra	131

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU. (*Aitua*).
3. *F. Apalategui, S.I.*: EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
4. *Pepe Artola*: USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso asko.
5. *P.M. Urruzuno*: EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
6. *Toribio Alzaga*: RAMUNTXXO.
7. *Ramos Azkarate*: GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
8. *Antero Apaolaza*: PATXIKO TXERREN.
9. *Bitoriano Iraola*: OROITZAK ta beste ipui asko.
10. *Bertsolariak*: ERREGE EGUNEKO BERTSO SAYOA (1962).
11. *Piarres Larzabal*: BORDAXURI
12. *Bilintx*: BERTSO TA LAN GUZIAK.
13. *Mariano Izeta*: DIRUA GALGARRI.
14. *Piarres Larzabal*: IRU ZIREN.
15. *Bertsolariak*: EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
16. *Alfonso M.^o Zabala*: GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
17. *Antonio M.^o Labayen*: MALENTXXO, ALARGUNI
- 18-19. *Antonio Zavala, S.I.*: TXIRRITA (*Bizitza ta ta bat bateko bertsoak*).
20. *Franzisko Gofit, S.I.*: LURDESKO GERTAE-RAK.

21. *Piarres Larzabal*: HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
22. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962).
23. AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.
24. *Fermin Imaz*: BERTSO GUZIAK.
25. *A.P. Iturriaga*: JOLASAK.
26. *Alfonso M.^o Zabala, A. Larraitz, Juan Mir*: PERIYAREN ZALAPARTAK.—Melitona'ren bi senarrak.—Mendibe'tarren larriyak.—Utzi bearkol —Gizon bikañak.
27. *Bertsolariak*: AZPEITIKO PREMIYOAREN BERTSOAK.
28. *Bizenta A. Moguel*: IPUI ONAK.
29. *Toribio Alzaga*: BURRUNTZIYA.—Bernaiño'ren larriyak.—Txibiribiri.—San Tomas'eko feriya.
30. *Graziano Anduaga*: EGUNSENTIKO TXORIA ta beste bertso asko.
31. *M. Soroa*: BARATZAN.
32. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAREN BIZITZA, bere alabak kontatua.
33. *Mikela Elicegui, Antonio Zavala, S.I.*: PELLO ERROTAK JARRITAKO BERTSOAK.
34. *Piarres Larzabal*: SENPERE-N GERTATUA.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: FESTARA.
37. *Agustin Cardaberaz, S.I.*: EUSKERAREN BERRI ONAK.
38. *Sebastián Salaverriá*. NERONEK TIRAKO NIZKIN.
39. *Bertsolariak*. AMAR URTEKO BERTSO-PAPE-RAK.
- 40-41. *Jose Ramon Zubillaga*: LARDASKETA.
42. *Uztapide*: NOIZBAIT.
43. *Bertsolariak*: BERTSOLARIEN TXAPELKETA (1-I-1965).



1027927

JB-917

